



2008ko irailak 16 asteartea
177 Zenbakia

Martes 16 de septiembre de 2008
Número 177

LABURPENA — SUMARIO

	<u>Orrialdea</u>		<u>Página</u>
4	Gipuzkoako Lurralde Historikoko Administrazioa.....	4	Administración del T.H. de Gipuzkoa.....
	28.867		28.867
5	Estatuko Administrazioa	5	Administración del Estado
	28.906		28.906
6	Autonomia Erkidegoko Administrazioa.....	6	Administración de la Comunidad Autónoma
	28.925		28.925
7	Udal Administrazioa.....	7	Administración Municipal
	28.948		28.948
8	Justizia Administrazioa.....	8	Administración de Justicia
	29.017		29.017

4

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ADMINISTRAZIOA ADMINISTRACION DEL TERRITORIO HISTORICO DE GIPUZKOA

4

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

2008ko irailaren 9ko 68/08 FORU DEKRETUA, Gipuzkoako Foru Aldundian Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Departamentu arteko Batzordea eta Talde Teknikoa eta, departamentu bakoitzean, Departamentu barruko Unitatea sortzeko eta osaera eta funtzionamendua arautzekoa.

Foru Aldundiko Kiroletako eta Kanpo Ekintzako Departamentuaren helburu nagusi bat, Lankidetzako, Giza Eskubideetako eta Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusiaren bitartez gure lurraldeko bizitza politiko, ekonomiko eta sozialerako esparru guztietan, emakumeen eta gizonen benetako berdintasuna lortzea da. Horretarako, baldintzak sustatzen ditu sexuen arteko berdintasuna errazteko, hori izatez eta eskubidez ukatzen duten hesiak ezabatzeke eta Gipuzkoako Lurralde Historikoan eman litekeen emakumeen aurkako edozein diskriminazio deuseztatzeko.

Xede horrekin, Kiroletako eta Kanpo Ekintzako Departamentua 2008-2011 aldiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Foru Plana prestatzen ari da, horren bitartez Euskal Autonomia Erkidegoko 2005eko otsailaren 18ko 4/05 Legea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa, garatzeko, honela baitio 6. artikuluan:

DIPUTACION FORAL DE GIPUZKOA

DECRETO FORAL 68/2008 de 9 de setiembre, de creación, composición y funcionamiento de la Comisión y del Grupo Técnico Interdepartamentales y de las Unidades Intradepartamentales de Igualdad de Mujeres y Hombres de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Uno de los fines esenciales del Departamento de Deportes y Acción Exterior de la Diputación Foral de Gipuzkoa, a través de su Dirección General de Cooperación, Derechos Humanos e Igualdad, es la consecución de la igualdad real y efectiva para mujeres y hombres en todos los ámbitos de la vida política, económica y social de nuestro territorio, fijándose como objetivo del mismo la promoción de las condiciones que faciliten la igualdad entre los sexos y la remoción de los obstáculos que impidan su plenitud de hecho y de derecho, y la eliminación de todas las formas de discriminación hacia las mujeres en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Con esta finalidad, el Departamento de Deportes y Acción Exterior está elaborando el Plan Foral para la Igualdad de Mujeres y Hombres 2008-2011, que desarrollará el nuevo marco rector que otorga la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, y que, en su artículo 6, establece:

«Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan, bakoitzak bere lurralde historikoaren eremuan diharduela, ondokoak dira foru-administrazioei dagozkien eginkizunak:

a) Azpiegiturak, programak eta prozedurak egokitu eta sortzea, bere administrazio-jardueran genero-ikuspegia integrazte aldera».

Eta 10.1 artikuluan: «Foru- eta toki-administrazioek, bakoitzak bere burua antolatzeko dituen eskumenen eremuan, beren egiturak egokitu behar dituzte, halako moduz non administrazio bakoitzak emakumeen eta gizonen berdintasun-politikak bultzatu, programatu, ebaluatu eta horiei buruzko aholkuak ematen jardungo duen erakunde, organo edo administrazio-unitate bat izango baitu, gutxienez, dagozkion jarduera eremuan».

Helburu horiek lortu ahal izateko, generoaren ikuspegia zeharka aplikatu behar da, hori baita instituzioetan eta gizarte erakundeetan aldaketa prozesu eraginkorrek sortzeko modua, pertsonak, zerbitzuak eta egiturak lotzen dituen berdintasuna lortzeko ekimenean, Foru Aldundiko departamentu guztiak eta beren jarduera eremu guztiak hartzen dituela.

Ildo horretan, instituzioen arlo honetako ekintza benetan eraginkorra izan dadin, Foru Aldundiko departamentuek beren erabakiak koordinatuta, koherentziaz eta osagarritasunez hartzea funtsezkoa da, beste administrazio publikoekin ondo koordinatu beharri ezer kendu gabe.

Gauzak horrela, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Lankidetzako, Giza Eskubideetako eta Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusiaren bitartez, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Departamentu arteko Batzordea sortzeko asmoa du, behar den metodologian sakondu nahi baitu, emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko ekintza positiboak diseinatzen eta gauzatzen aurrera egiteko eta departamentuen programa eta planetan zeharka moduan gai hori sartzeko. Halaber, Batzorde hori arduratuko da Berdintasunerako Foru Plana eta emakume eta gizonen arteko berdintasun gaietan Foru Administrazioak aurrera eramaten dituen politika eta programa guztien urratsak koordinatzeaz. Bestalde, foru dekretu honen bitartez sortuko dira, alde batetik, Departamentu arteko Talde Teknikoa, gai honetan departamentuek modu koordinatuan joka dezaten programazioa kudeatu, jarraipena egin eta bultzada emango duena, eta, beste aldetik, departamentu barruko unitateak, departamentu bakoitzeko jarduketak betetzeaz, jarraipena egiteaz eta ebaluatzeaz arduratuko direnak funtsean.

Horiek horrela, Kiroletako eta Kanpo Ekintzako Departamentuko foru diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaurko bileran eztabaidatu eta onartu ondoren, hau,

XEDATZEN DUT

1 artikulua. Xedea.

Gipuzkoako Foru Aldundian Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Departamentu arteko Batzordea, jarduketak koordinatzeko organo gisa, eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Departamentu arteko Talde Teknikoa eta departamentu barruko unitateak sortu eta arautzea da foru dekretu honen xedea.

2. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Departamentu arteko Batzordearen eginkizunak.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Departamentu arteko Batzordea berdintasun gaietan eskumena duen departamentuari atxikitzen zaio eta eginkizun hauek dauzka:

«En materia de igualdad de mujeres y hombres y en el ámbito de sus respectivos territorios históricos, corresponden a las administraciones forales las siguientes funciones:

a) Adecuación y creación de estructuras, programas y procedimientos para integrar la perspectiva de género en su actividad administrativa».

Y en el artículo 10.1.: «Las administraciones forales y locales, en el ámbito de sus competencias de autoorganización, han de adecuar sus estructuras de modo que exista en cada una de ellas al menos una entidad, órgano o unidad administrativa que se encargue del impulso, programación, asesoramiento y evaluación de las políticas de igualdad de mujeres y hombres en sus respectivos ámbitos territoriales de actuación».

La consecución de dichos objetivos nos conduce a la transversalización de la perspectiva de género, que se presenta como una de las maneras más eficaces de producir procesos de cambio en las instituciones y organizaciones sociales, al implicar a todas las personas, servicios y estructuras en el logro de los objetivos de igualdad y que afecta a todos los departamentos de la Diputación Foral y a todos sus ámbitos de intervención.

En este sentido, para que la acción institucional en esta materia sea realmente efectiva es fundamental que las medidas adoptadas por los departamentos de la Diputación Foral se lleven a cabo de forma coordinada, coherente y complementaria entre sí, al margen de una adecuada coordinación con las diferentes administraciones públicas.

A la vista de lo expuesto, la Diputación Foral de Gipuzkoa, a través de la Dirección General de Cooperación, Derechos Humanos e Igualdad, ha considerado conveniente la creación de la Comisión Interdepartamental para la Igualdad de Mujeres y Hombres a fin de profundizar en una metodología de trabajo que permita avanzar en el diseño y ejecución de acciones positivas para alcanzar la igualdad de mujeres y hombres e incorporar de modo transversal en los programas y planes de los departamentos la perspectiva de género, así como constituirse en órgano encargado de la coordinación de la ejecución del Plan Foral para la Igualdad de Mujeres y Hombres y de las políticas y programas que en materia de igualdad de mujeres y hombres desarrolle la Administración Foral. Por otra parte, se procede a crear también, por un lado, el Grupo Técnico Interdepartamental, cuya finalidad será la gestión de la programación, el seguimiento y el impulso de la acción coordinada entre departamentos en esta materia, y por otro, las Unidades Intradepartamentales, encargadas fundamentalmente de la ejecución, seguimiento y evaluación de las actuaciones de cada departamento.

En su virtud, a propuesta del diputado foral del Departamento de Deportes y Acción Exterior, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Diputados en su reunión del día de hoy,

DISPONGO

Artículo 1. Objeto.

Es objeto del presente decreto foral la creación y regulación de la Comisión Interdepartamental, como órgano de coordinación de las actuaciones, y del Grupo Técnico Interdepartamental, así como de las Unidades Intradepartamentales de Igualdad de Mujeres y Hombres de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Artículo 2. Funciones de la Comisión Interdepartamental de Igualdad de Mujeres y Hombres.

La Comisión Interdepartamental de Igualdad de Mujeres y Hombres queda adscrita al departamento competente en materia de igualdad, y serán sus funciones las siguientes:

a) Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuen artean, gizon-emakumeen berdintasunaren gaitan, elkarriketarako organo iraunkorra izatea eta elkarrekin esperientziak eta jarduketak proposamenak ezagutu eta aztertzeko gunea ere izatea, sinergiak sortu eta Aldundiaren berdintasun politiken kudeaketa eta emaitzak optimizatzeko aldera.

b) Diputatuen Kontseiluak onartu beharko duen «2008-2011 aldiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Foru Plana» prestatzeko lanetan parte hartzea.

c) Berdintasunaren arloko planak eta programak prestatzeko jarraibideak finkatzea. Plan eta programa bakoitzean beti egon beharko dute jasota haren helburuak, ekintza zehatzak, aurreikusitako egutegia eta aurrekontua, eta xedatu zaizkien baliabideak.

d) Berdintasunaren arloan Aldundiko departamentuen esku-hartzeak eta jarduketak koordinatzeko proposamenak prestatzea eta jarraibideak ematea.

e) Berdintasunerako Foru Plana benetan aplikatu dadin bultzatzea eta koordinatzea, departamentuei lagunduz, proposamenak prestatuz eta haien artean eskumenak direla eta sor litezkeen oztopoak gainditzeko irizpideak proposatuz.

f) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko 4/05 Legean xedatutakoa benetan bete eta garatzeko behar diren arauak eman ditzatela edo bestelako ekintzak egin ditzatela proposatzea departamentuei.

g) Aldundiaren berdintasun arloko plan orokorrak prestatzen parte hartzea, plan horiek bildu beharko baitituzte arlo horretan Foru Administrazioaren gidari izan behar duten jardun larroak eta jarraibideak.

h) Foru Planean eta 4/2005 Legeko 15.3 artikuluan xedatutakoari jarraituz departamentuek egin behar dituzten plan eta programen jarraipena egitea urtero, aurreikuspenen aldean zentzuzkoak bete eta garatu diren, ekintzak aplikatu diren eta zer bitarteko eta baliabide erabili diren aztertuz.

i) Egindako ekintzak eta erabilitako bitartekoak eta baliabideak aurreikuspenekin alderatuz aztertzen dituen urteroko jarraipen txostena, Talde Teknikoak prestatutakoa, onartzea.

j) Departamentu arteko Talde Teknikoaren eta departamentu barruko unitateen lana zuzentzea eta gainbegiratzea. Batzordearen bileretan eta Talde Teknikoaren eta unitateen bileretan, haietako kide ez den jendeak parte hartzekotan, baimena ematea.

k) Bere ardurapean jartzen zaion beste edozein eginkizun.

3. artikulua. *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Departamentu arteko Batzordearen osaera.*

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Departamentu arteko Batzordeak kide hauek izango ditu:

a) Lehendakaria: Berdintasun gaian eskumena duen departamentuko foru diputatua. Kanpoan edo gaixorik badago edo kargua hutsik badago, lehendakariordea arituko da haren ordean.

b) Lehendakariordea: Berdintasun gaian eskumena duen zuzendaritza nagusiko zuzendari nagusia.

c) Bokalak: Foru Aldundiko departamentuetako zuzendari nagusiak.

d) Idazkaria: Berdintasun gaian eskumena duen departamentuko foru diputatuak izendatutako pertsona.

a) Servir de órgano de interlocución permanente en materia de igualdad de mujeres y hombres entre los departamentos de la Diputación Foral de Gipuzkoa, así como de espacio de diálogo y puesta en común de experiencias y propuestas de actuación, con el fin de generar sinergias que permitan optimizar la gestión y los resultados de las políticas forales de igualdad.

b) Participar en el proceso de elaboración del «Plan Foral para la igualdad de Mujeres y Hombres 2008-2011» que se ha de aprobar por el Consejo de Diputados.

c) Establecer directrices para la elaboración de los planes y programas en materia de igualdad que, en todo caso, deben incluir los objetivos a conseguir, las acciones concretas a desarrollar, el calendario de ejecución previsto, el presupuesto estimado y los recursos destinados a su cumplimiento.

d) Elaborar propuestas y establecer directrices en materia de igualdad para la coordinación de las intervenciones y actuaciones de los diferentes departamentos de la Diputación.

e) Impulsar y coordinar la aplicación efectiva del Plan Foral de Igualdad aprobado, colaborando, elaborando propuestas y proponiendo criterios para dirimir los obstáculos competenciales entre los departamentos.

f) Proponer a los distintos departamentos la adopción de normas u otro tipo de acciones precisas para el eficaz cumplimiento y desarrollo de lo dispuesto en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

g) Participar en el proceso de elaboración de los planes generales que han de recoger las líneas de intervención y directrices que deben orientar la actividad de la Administración Foral en materia de igualdad.

h) Hacer un seguimiento anual del cumplimiento, desarrollo y aplicación de las acciones realizadas y de los medios y recursos utilizados en relación con las previsiones de los planes o programas que los departamentos han de elaborar según lo establecido en el Plan Foral y en el artículo 15.3 de la Ley 4/2005, de 18 de febrero.

i) Aprobar el informe, elaborado por el Grupo Técnico, de seguimiento anual de las acciones, medios y recursos utilizados con relación a las previsiones establecidas.

j) Dirigir y supervisar el trabajo del Grupo Técnico Interdepartamental y de las Unidades Intradepartamentales, así como autorizar la presencia de personas no miembros en las sesiones tanto de la propia Comisión como del Grupo Técnico Interdepartamentales y de las Unidades Intradepartamentales.

k) Cualesquiera otras que le sean encomendadas.

Artículo 3. Composición de la Comisión Interdepartamental de Igualdad de Mujeres y Hombres.

La Comisión Interdepartamental de Igualdad de Mujeres y Hombres estará compuesta por las siguientes personas:

a) Presidencia: El Diputado o Diputada Foral del Departamento competente en materia de igualdad. En caso de ausencia, vacante o enfermedad se sustituirá por la persona que ocupe la Vicepresidencia.

b) Vicepresidencia: La Directora o Director General de la Dirección competente en materia de igualdad.

c) Vocales: Las Directoras y Directores Generales que integran los departamentos de la Diputación Foral.

d) Secretaría: La persona designada por el Diputado o Diputada Foral del Departamento competente en materia de igualdad.

4. artikulua. Lehendakariaren eginkizunak.

Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Departamentu arteko Batzordeko lehendakariak eginkizun hauek izango ditu:

- a) Organoaren ordezkaria izatea.
- b) Batzordearen ohiko eta aparteko bileretara deitzeko eta gai zerrendak finkatzeko erabakiak hartzea, horretarako beste batzordekideek egindako eskaerak kontuan hartuta, garaiz eginak badira.
- c) Batzordearen bileretan buru eta eztabaidetan moderatzaile izatea, eta, nahiko arrazoiz dagoenean, bilerak etetea.
- d) Eztabaidak zuzentzea eta, oro har, bilerak bide onetik joan daitezen behar diren erabakiak hartzea.
- e) Berdinketak bere botoaz haustea, erabakiak hartu ahal izateko.
- f) Legeak beteko direla ziurtatzea.
- g) Organoaren lehendakari gisa dagozkion beste eginkizun guztiak.

5. artikulua. Lehendakariordearen eginkizunak.

Lehendakariordeak eginkizun hauek izango ditu:

- a) Batzordearen bilerak deitzea eta gai zerrenda finkatzea, lehendakariak proposatuta.
- b) Lehendakariaren ordezkari aritzea, hura kanpoan edo gairik badago edo kargua hutsik badago.
- c) Lehendakariak beraren esku jarritako guztiak.

6. artikulua. Bokalen eginkizunak.

Batzordeko bokalek eginkizun hauek dituzte:

- a) Bileretara joatea eta eztabaidetan parte hartzea.
- b) Batzordeari proposamenak aurkeztea.
- c) Foru dekretu honen 9.2 artikuluan aurreikusita dagoen eskaria egitea.
- d) Botoa ematea, botoaren zentzua azalduz, eta, gehien iritziaren kontrakoa denean, boto partikularra ematea.
- e) Lan talde teknikoak eratzeko proposatzea.
- f) Batzordean eta bere lan talde teknikoetan eta departamentu barruko unitateetan haietako kide ez den jendeak parte har dezan proposatzea.

7. artikulua. Idazkariaren eginkizunak.

Batzordeko idazkariari dagokio:

- a) Bilerak prestatzea.
- b) Batzordearen bileren aktak egitea.
- c) Batzordearen erabakien ziurtapenak egitea.
- d) 2. artikuluko c) atalean aipatu den programa eta i) atalean aipatu den jarraipen txostena onartzeko proposatzea.
- e) Batzordean tramitatzen diren espedienteen jarraipena bultzatzea eta egitea, eta Departamentu arteko Talde Teknikoari edo departamentu barruko unitateei esleitutako espedienteen egoerari buruzko informazioa biltzea.
- f) Batzordearen jarduketan berri jasotzen duten dokumentuak artxibatzea eta zaintzea.
- g) Lehendakariak agintzen dizkion kudeaketa eta koordinazio egintza guztiak, karguari berez edo legeriaren indarrez dagozkionak.

Artículo 4. Funciones de la Presidencia.

La Presidencia de la Comisión Interdepartamental de Igualdad de Mujeres y Hombres ostentará las funciones siguientes:

- a) Ostentar la representación del órgano.
- b) Acordar la convocatoria de las sesiones ordinarias y extraordinarias y la fijación del orden del día, teniendo en cuenta, en su caso, las peticiones del resto de miembros formuladas con la suficiente antelación.
- c) Presidir las sesiones de la Comisión, moderar el desarrollo de los debates y suspenderlos por causas justificadas.
- d) Dirigir las deliberaciones y, en general, ejercitar las facultades precisas para el adecuado desarrollo de las sesiones.
- e) Dirimir con su voto los empates, a efectos de adoptar acuerdos.
- f) Asegurar el cumplimiento de las leyes.
- g) Ejercer cuantas otras funciones sean inherentes a su condición de Presidenta o Presidente del órgano.

Artículo 5. Funciones de la Vicepresidencia.

Serán funciones de la Vicepresidencia:

- a) Convocar las sesiones de la Comisión y fijar el orden del día, a propuesta de la Presidencia.
- b) Sustituir al Presidente o Presidenta en caso de ausencia, vacante o enfermedad.
- c) Cuantas les sean delegadas por la Presidencia.

Artículo 6. Funciones de las personas vocales.

Las y los vocales de la Comisión tienen las siguientes funciones:

- a) Asistir a las sesiones y participar en los debates.
- b) Presentar a la Comisión las propuestas que estimen oportunas.
- c) Ejercer la iniciativa prevista en el artículo 9.2 del presente decreto foral.
- d) Emitir su voto, expresando el sentido del mismo, así como formular voto particular discrepante con el parecer de la mayoría.
- e) Proponer la constitución de grupos técnicos de trabajo.
- f) Proponer la presencia de personas no miembros en la Comisión Interdepartamental y en sus grupos técnicos y en las Unidades intradepartamentales.

Artículo 7. Funciones de la Secretaría.

Corresponde al secretario o secretaria:

- a) Preparar las sesiones.
- b) Levantar las actas de las sesiones de la Comisión.
- c) Expedir certificaciones de los acuerdos de la Comisión.
- d) Proponer la adopción del programa y del informe de seguimiento referidos en los apartados c) e i) del artículo 2.
- e) Impulsar y realizar el seguimiento de cuantos expedientes se tramiten en la Comisión, y recabar la información sobre el estado de los que se encuentren atribuidos al Grupo Técnico Interdepartamental y a las Unidades intradepartamentales.
- f) Archivar y custodiar los documentos en que consten las actuaciones desarrolladas por la Comisión.
- g) Realizar cuantos actos de gestión y coordinación le sean encomendados por la Presidencia, sean propios del cargo o el ordenamiento jurídico vigente le atribuya.

8. artikulua. Departamentu arteko Batzordearen funtzionamendua.

1. Departamentu arteko Batzordeak, nahiz osorik, nahiz gai jakinak aztertzeko azpibatzerdeen bitartez lan egin dezake. Batzorde osoari dagokio azpibatzerde bakoitza osatuko duten kideak izendatzea.

2. Batzordeak, zer gai aztertu behar dituen ikusita, bere osoko bileretan parte hartzera gonbida ditzake pertsona adituak nahiz interes sozial eta ekonomiko jakinak ordezkatzeko dituzten erakundeetako kideak, haien iritzia jakin nahi duenean.

3. Aurreko puntuan esandakoa hala izanik ere, aztergaiaren arabera, azpibatzerdeek ere onar ditzakete beren baitan pertsona adituak nahiz interes sozial eta ekonomiko jakinak ordezkatzeko dituzten erakundeetako kideak, hitzarekin baina botorik gabe.

4. Batzordearen bilerak, osoarenak nahiz azpibatzerdeenak, baliozkoak izango dira, lehen deialdian, boto eskubidea duten kideen gehiengo absolutua bildu bada, tartean lehendakaria —edo hura ez dagoenean haren ordezkaria— eta idazkaria egon behar dutela. Bigarren deialdian, bilera baliozkoa izateko, nahikoa izango da lehendakaria —edo hura ez dagoenean haren ordezkaria—, idazkaria eta bederatzi bokal bertan egotea.

5. Batzordearen erabakiak, bildutako botodunen gehiengo soiluz hartuko dira. Berdinketarik gertatuz gero, lehendakariaren kalitateko botoak erabakiko du.

6. Bilera guztien akta idatziko da, xehetasun hauek jasota: Elkartutakoak, tokia eta eguna, eztabaidetako puntu nagusiak, botazioen moduak eta emaitzak, eta erabakien edukia.

7. Aktak idazkariak sinatuko ditu, lehendakariaren oniritziarekin, eta bilera berean edo hurrengoan onartuko dira.

8. Batzordeko kideek aktan jasoaraz ditzakete beren boto partikularrak, erabaki osoari nahiz zati batzuei buruzkoak izan.

9. artikulua. Departamentu arteko Batzordearen bileren araubidea.

1. Batzorde osoak urtean bi ohiko bilera egin behar ditu gutxienez.

2. Batzordeak aparteko osoko bilerak ere egin ditzake, lehendakariaren ekimenez edo batzordekideen bi herenek gutxienez eskatuta.

3. Batzordea osatzen dutenen bi herenen eskariz aparteko bilera deitzeko, idatziz egin beharko dute eskaera, aztertu beharreko gaien proposamen arrazoitua bertan azalduta. Horrela egin ez gero, lehendakariak aparteko bilera deituko du eskaera egin ondorengo 15 egunen barruan, eta gai zerrendan eskatutako puntu guztiak sartuko ditu, nahi badu gehiago erantsita.

10. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Departamentu arteko Talde Teknikoa.

1. Departamentu arteko Talde Teknikoaren zeregina Departamentu arteko Batzordeko kideei laguntza eta aholkularitza tekniko ematea da, haiek beren eginkizunak ondo bete ditzaten. Talde Teknikoa urtean bi aldiz gutxienez elkartuko da.

Artículo 8. Funcionamiento de la Comisión Interdepartamental.

1. La Comisión Interdepartamental puede funcionar en Pleno y en Subcomisiones para el estudio de temas específicos, correspondiendo al Pleno el nombramiento de las personas que formen parte de cada una de las Subcomisiones.

2. El Pleno, en función de los temas a tratar, puede invitar a participar en sus sesiones a personas expertas y a miembros de organizaciones representativas de los intereses sociales y económicos, cuando considere oportuno recabar su parecer.

3. No obstante lo señalado en el párrafo anterior, las Subcomisiones pueden también, en función de la materia, integrar dentro de ellas, con voz y sin voto, a personas expertas y a miembros de las organizaciones representativas de los intereses sociales y económicos.

4. La Comisión, tanto en su funcionamiento en Pleno como en Subcomisiones, quedará válidamente constituida, en primera convocatoria, con la asistencia de la mayoría absoluta de sus miembros con derecho a voto, entre los que debe encontrarse necesariamente la Presidenta o el Presidente, o, en caso de ausencia, quien le sustituya, y la Secretaria o Secretario. En segunda convocatoria, bastará para su constitución válida con la presencia de la Presidenta o Presidente o quien les sustituya, la Secretaria o Secretario y nueve vocales.

5. La Comisión adoptará sus acuerdos por mayoría simple de las y los miembros asistentes con derecho a voto. En caso de empate decidirá el voto de calidad de la Presidenta o Presidente.

6. De cada sesión se levantará acta que contendrá la indicación de las personas que hayan asistido, así como las circunstancias de lugar y tiempo en que se haya celebrado, los puntos principales de las deliberaciones, la forma y resultados de las votaciones y el contenido de los acuerdos.

7. Las actas serán firmadas por el Secretario o Secretaria con el visto bueno de la Presidencia, y se aprobarán en la misma sesión o en la siguiente.

8. Las personas miembros de la Comisión pueden hacer constar en acta sus votos particulares, ya sea a la totalidad del acuerdo, ya sea a cuestiones puntuales del mismo.

Artículo 9. Régimen de Sesiones de la Comisión Interdepartamental.

1. El Pleno de la Comisión ha de celebrar, al menos, dos sesiones ordinarias al año.

2. Además, el Pleno puede celebrar sesiones extraordinarias a iniciativa de la Presidencia o a petición de dos tercios de sus integrantes.

3. La solicitud de convocatoria de sesiones extraordinarias a petición de dos tercios de las y los integrantes del Pleno se realizará por escrito, que habrá de contener la propuesta motivada de los asuntos a tratar. En este caso, la Presidencia convocará la reunión extraordinaria dentro de los quince días siguientes al de la solicitud y el orden del día incluirá necesariamente los puntos solicitados, pudiendo la Presidenta o el Presidente adicionar otros.

Artículo 10. Grupo Técnico Interdepartamental de Igualdad de Mujeres y Hombres.

1. El Grupo Técnico Interdepartamental tiene como finalidad prestar apoyo y asesoramiento técnico a las y los miembros de la Comisión Interdepartamental para el correcto desempeño de sus funciones y se reunirá cuando menos dos veces al año.

2. Departamentu arteko Talde Teknikoak eginkizun hauek dauzka:

a) Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan, berari esleitzen zaizkion kontuetan, Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuak edo haien jarduketan koordinazioa ukitzen dituzten gaiei buruzko azterketak, txostenak eta proposamenak egitea.

b) Esperientziak eta proposamenak elkarrekin ezagutu eta aztertzeko gune izatea, sinergiak sortu eta berdintasun politiken kudeaketa optimizatze aldera.

c) Instituzio osoari eragiten dioten berdintasunaren aldeko erabakiak hartzeko proposatzea Departamentu arteko Batzordeari.

d) Berdintasunerako Foru Plana garatzeko eta betetzeko bere ustez komeni diren ekintzak Batzordeari proposatzea.

e) Urtero, egindako ekintzei eta erabilitako bitarteko eta baliabideei buruzko jarraipen txosten bat eta Planean aurreikusitako helburuak betetzeari buruzko ebaluazio bat egitea, eta Batzordeari helaraztea onar dezan. Horretarako, departamentu bakoitzak egindako ekintzen eta erabilitako bitarteko eta baliabideen informazioa emango du, hartarako diseinatutako mekanismoen bidez.

f) Gizon-emakumeen berdintasunaren arloko egiturazko eta abaguneko alderdiak aztertzen dituzten txostenak eta balorazioak lortzearen, beste erakunde publiko edo pribatuekin elkarlanean aritu eta zeregin jakin batzuk sortzen badira, haiek planifikatzen, koordinatzen eta ezartzen parte hartzea.

g) Batzordeak esleitzen dion beste edozein eginkizun.

11. artikulua. Departamentu arteko Talde Teknikoaren osuera.

1. Departamentu arteko Talde Teknikoak kide hauek izango ditu:

a) Gipuzkoako Foru Aldundia osatzen duten departamentu guztietako idazkari teknikoak.

b) Berdintasun gaietan eskumena duen zuzendaritza nagusiko ordezkari bat, taldearen koordinatzaile izango dena.

c) Foru Aldundiko Enpresa Batzordearen bi ordezkari.

2. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Departamentu arteko Batzordeak baimena emanda, berdintasun gaietako adituak joan ahal izango dira Departamentu arteko Talde Teknikoaren bileretara.

12. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Departamentu barruko Unitateak.

Berdintasun unitateen eginkizunak hauek dira:

a) Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentu bakoitzeko kideen artean, gizon-emakumeen berdintasunaren gaietan, elkarriketarako organo iraunkorra izatea eta elkarrekin esperientziak eta jarduketa proposamenak ezagutu eta aztertzeko gunea ere izatea, sinergiak sortu eta Aldundiaren berdintasun politiken kudeaketa eta emaitzak optimizatze aldera.

b) Berdintasun arloko proposamenak egitea eta departamentuko idazkari teknikoaren bitartez Departamentu arteko Talde Teknikoari helaraztea, Foru Aldundiko departamentu guztietako esku-hartzeak eta jarduketak koordinatuak izan daitezzen.

c) Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak onartuta eta indarrean daukan Berdintasunerako Foru Planeko ekintzak bultzatzea eta koordinatzea bere departamentuan.

2. Las funciones de este Grupo son las siguientes:

a) Elaborar estudios, informes y propuestas con relación a las cuestiones que se le atribuyan en materia de igualdad de mujeres y hombres y que afecten a los Departamentos de la Diputación Foral de Gipuzkoa, y coordinar las actuaciones de éstos.

b) Servir de espacio de puesta en común de experiencias y de propuestas al objeto de generar sinergias de forma que se optimice la gestión de las políticas de igualdad.

c) Proponer a la Comisión Interdepartamental la adopción de medidas en el logro de la igualdad que afecten a toda la institución.

d) Proponer a la Comisión cuantas acciones se estimen convenientes para el desarrollo y ejecución del Plan Foral.

e) Elaborar y someter a la Comisión para su aprobación, un informe anual de seguimiento de las acciones desarrolladas y de los medios y recursos utilizados, junto con una valoración en torno a la consecución de objetivos previsto en el Plan. Para ello, cada departamento informará, a través de los mecanismos diseñados al efecto, de las acciones ejecutadas y de los medios y recursos utilizados.

f) Participar en la planificación, coordinación e implantación, en su caso, de los trabajos derivados de las colaboraciones con entidades públicas o privadas, al objeto de obtener informes y valoraciones sobre aspectos estructurales y coyunturales en materia de igualdad de mujeres y hombres.

g) Cualesquiera otras que la Comisión le asigne.

Artículo 11. Composición del Grupo Técnico Interdepartamental.

1. El Grupo Técnico Interdepartamental estará integrado por:

a) Las Secretarías Técnicas o los Secretarios Técnicos de cada uno de los Departamentos que integran la Diputación Foral de Gipuzkoa.

b) Un o una representante de la Dirección General competente en materia de igualdad, que ejercerá las funciones de coordinación del Grupo.

c) Dos representantes del Comité de Empresa de la Diputación Foral.

2. La Comisión Interdepartamental de Mujeres y Hombres puede autorizar que personas expertas en materia de igualdad asistan a las reuniones del Grupo Técnico Interdepartamental.

Artículo 12. Unidades Intradepartamentales de Igualdad de Mujeres y Hombres.

Las funciones de estas Unidades son las siguientes:

a) Servir de órgano de interlocución en materia de igualdad de mujeres y hombres entre las personas que integran cada uno de los departamentos de la Diputación Foral de Gipuzkoa, así como de espacio de diálogo y puesta en común de experiencias y propuestas de actuación, con el fin de generar sinergias que permitan optimizar la gestión y los resultados de las políticas forales de igualdad.

b) Elaborar propuestas en materia de igualdad y remitirlas a través de la Secretaría Técnica o del Secretario Técnico del departamento al Grupo Técnico Interdepartamental para la coordinación de las intervenciones y actuaciones de los diferentes departamentos de la Diputación foral.

c) Impulsar y coordinar dentro de su departamento las acciones del Plan Foral de Igualdad vigente, aprobado por el Consejo de Diputados de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

- d) Departamentu barruko ekintzak bultzatzea.
- e) Aldundiaren berdintasun politiken programazioa, jarraipena eta ebaluazioa kudeatzea bere departamentuan.
- f) Kasuan kasuko departamentuan Berdintasunerako Foru Planari edo foru programei dagokien jarraipena egitea.
- g) Bere ardurapean jartzen zaion beste edozein eginkizun.

13. artikulua. Departamentu barruko unitateen osaera.

1. Departamentu barruko unitateek kide hauek izango dituzte:

- a) Departamentuko zuzendaritza nagusi guztietako pertsona bana gutxienez.
- b) Departamentuko idazkari teknikoa, Departamentu arteko Talde Teknikoko kide ere izango dena.

2. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Departamentu arteko Batzordeak baimena emanda, berdintasunaren gaietako adituak joan ahal izango dira unitate horien bileretara.

14. artikulua. Departamentu barruko unitateen bileren araubidea.

1. Departamentu barruko unitateen bileretarako deiak idazkari teknikoak egingo ditu, eta berak ordezkatu du departamentua Departamentu arteko Talde Teknikoan.

2. Departamentu barruko unitateak gutxienez urtean hiru aldiz eta, horrez gain, beharrezkoa ikusten den guztietan elkartuko dira.

Amaierako xedapena. Indarrean sartzea.

Foru dekretu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Donostia, 2008ko irailaren 9a.

DIPUTATU NAGUSIA,
Markel Olano Arrese.

KIROLETAKO ETA KANPO EKINTZAKO
DEPARTAMENTUKO
FORU DIPUTATUA,
Iñaki Galdos Irazabal.

(5522)

(10119)

- d) El impulso de acciones intradepartamentales.
- e) La gestión dentro de su departamento de la programación, el seguimiento y evaluación de las políticas forales de igualdad.
- f) Realizar el seguimiento del Plan Foral o programas forales de igualdad en el departamento correspondiente.
- g) Cualesquiera otras que le sean encomendadas.

Artículo 13. Composición de las Unidades Intradepartamentales.

1. Las Unidades Intradepartamentales estarán integradas por:

- a) Una persona como mínimo de cada Dirección General de los distintos departamentos que componen la Diputación Foral.
- b) La Secretaria Técnica o Secretario Técnico del Departamento, que a su vez formará parte del Grupo Técnico Interdepartamental.

2. La Comisión Interdepartamental de Mujeres y Hombres podrá autorizar que personas expertas en materia de igualdad asistan a las reuniones de dichas unidades.

Artículo 14. Régimen de sesiones de las Unidades Intradepartamentales.

1. Las reuniones de las Unidades Intradepartamentales serán convocadas por la Secretaria Técnica o Secretario Técnico que será la persona que represente al departamento en el Grupo Técnico Interdepartamental.

2. Las Unidades Intradepartamentales se reunirán un mínimo de tres veces al año y siempre que se estime necesario.

Disposición final. Entrada en vigor.

El presente decreto foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

Donostia-San Sebastián, a 9 de setiembre de 2008.

EL DIPUTADO GENERAL,
Markel Olano Arrese.

EL DIPUTADO FORAL
DEL DEPARTAMENTO DE
DEPORTES Y ACCION EXTERIOR,
Iñaki Galdos Irazabal.

(5522)

(10119)

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

2008ko irailaren 9ko 70/08 FORU DEKRETUA, Gipuzkoako Bizikletaren Kontseiluaren arautegia onartzekoa.

Giza ingurumenari buruz Nazio Batuek Stockholmen 1972an egin zuten gailurrean, mendebaldeko garapen ereduari egotzi zizkioten ingurumeneko inpaktu garrantzitsuenak. Eta gailur hartan baliabide ez berriztagarriei buruz egin ziren proposamenen eraginez, Lurraren Gailurra ospatu zen hogeitau urte geroago Río de Janeiro. Izan ere, hogeitau urte geroago bazuten oinarri zientifiko nahikorik ingurumeneko inpaktuen arazoiei buruz gogoeta egin eta erantzuteko eta jarduketa-lerro errealak eta eraginkorrak erabakitzeko. Nazioarteak Lurraren Gailurrean ekin zion beroketa globalaren inguruko erabakiak hartzeko prozesuari (Kiotoko 1997ko erabakiak), atzeman baitzuten negutegi efektuko gasen isurketa beroketaren eragile handienetakoa dela eta gas horiek ibilgailu motordunen errekuntzak sortzen

DIPUTACION FORAL DE GIPUZKOA

DECRETO FORAL 70/2008, de 9 de setiembre, por el que se aprueba el Reglamento del Consejo de la Bicicleta de Gipuzkoa.

La Cumbre de las Naciones Unidas sobre Medio Ambiente Humano celebrada en Estocolmo en 1972 responsabilizó al modelo occidental de desarrollo de los más importantes impactos ambientales. Las propuestas sobre los recursos no renovables desembocaban veinte años más tarde en la Cumbre de la Tierra celebrada en Río de Janeiro donde se disponía de las bases científicas suficientes para preguntarse y responder sobre las causas y las líneas reales y efectivas de actuación. El proceso de adopción de acuerdos internacionales relacionados con el calentamiento global, acuerdos de Kioto de 1997, se inició en esta cumbre, detectando que uno de los factores fundamentales que incidían en dicho calentamiento era la emisión de gases de efecto invernadero generados en su mayor parte por la combus-